

Helduen literatura | AFORISMOAK

Atzorako geratu dena.
Ana Urkiza.

Alberdania, 2011.
120 orrialde. Paperean 20 euro, digitalean 11,20 euro.



*Zenbat eta gutxiago irakurri,
orduan eta handiago izango da
idatzita utziko dugun ondarearen balioa*

AFORISMOAK berekin du laburtasuna eta zorroztasuna. Eta horretaz gain, grazia eta ingenioa litzuzke, egiantzaren gainetik, nahiz eta egia autoreak erantsirikoa izan. Paradoxarena, beste kontua litzateke. Humberto Ekok honela bereizten ditu aforismoa eta paradoxa: *“El aforismo, por tanto, sería una máxima que pretende transmitir una verdad, aunque recurra a la agudeza, mientras que la paradoja sería una máxima prima facie falsa que, sólo tras una sesuda reflexión, parece expresar algo que el autor considera verdadero. Por ese motivo, su agudeza radica en el hiato entre la forma provocadora que adopta y lo que el público espera”*. (Beraz, aforismoa egia bat transmititu nahi duen esakunea litzateke, ateraldira joko badu ere. Paradoxa, berriz, esakune *prima facie* faltsua litzateke; hausnarketa sakonaren ostean, autoreari egiazkoa iruditzen zaion zerbait azaltzen duela ematen du. Hori dela eta, hartzen duen forma probokatzailaren eta publikoak espero duenaren artean sortzen den hiatoan datza bere zorroztasuna).

Urkizak sententziaz kargaturiko aforismoak bota ditu liburuan, beti ere jendartean erroturiko hainbat sinesmen hankaz gora jarritz: “Buruz behera jartzen naizenean ikusten dut mundua zuzen”, edota sakonduz “Politikariek ez dute egundo asmatzen. Ez eta gehiengoaren nahi hipotetikoa betetzen dutenean ere”.

Ingurumarian gertatzen denaz hausnartzeaz gain, maitasunaz, perfekzioaz, generoaz eta beste hainbat eta hainbat gaiz mintzo da Urkiza: “Maizenik gizona bere baitan hartu behar izaten du emakumeak, zakila

bezala”, “Laranja osoak garela aldarrikatzen hasi”, “Liftinak historia ezabatzeko ahalmena du; gezurra makillatzekoa”.

Baina aforismoez gain, paradoxaz kargaturik dago Urkizaren lana: “Hilekorik ez daukanak ez daki benetakako tripako mina zer den; hortik, burukominak ematen dituzten gerlak”, “Aberats izaten ikasteko, hobe lehenago pobrezian matrikulatzea”, “Diruagatik dena saldu ohi dugu, baita diruarekin erosi ezin den hura ere”.

Aforismoak gurean ez dira berriak eta etenik gabe azaltzen joan dira. Xabier Altzibarrek duela gutxi argitaratu zuen artikulua interesgarri bat *Euskera* aldizkarian: *Juan Martin Hiribarrenen Eskeraz eguia (1858), erranak eta aforismoak*. Hiribarrenek tenore hartan esandakoen eta Urkizak bota berri dituenen artean badaude diferentzia nabarmenak, baina baita antzekotasunak ere: hizkuntza eta bakoitzak bere garaiaren inguruan ematen duen ikuspegia eta egia.

Aforismoa gora eta aforismoa behera, argi dago aforismo asko idazten eta irakurtzen dela kontestarekin lotuta daudelako edota irakurketa kapsula txikiak direlako. Kontua da irakurleek estimazio egiten dietela, pena bada ere, izan ere “Zenbat eta gutxiago irakurri, orduan eta handiago izango baita idatzita utziko dugun ondarearen balioa”. ■

Gema Lasarte



BRANKA

Kontxako olatuen gainean, Haize Orraztearen ondoan, bertako produktuenganako arreta bereziarekin

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia

© 943 317 096 · Faxe: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com

www.branka-tenis.com